

JAKINARAZTEN DA behin behineko Alkateak 2024ko ekainaren 18an honako dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak, 2022ko abenduaren 23ko Alkatearen ebazpenaren bitartez, Gizarte Ongizateko teknikari lanpostua merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoak onetsi zituen (2022ko abenduaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 247. zk.).

2023ko maiatzaren 12an deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eskabideak aurkezteko epea zabalduz.

2023ko abuztuaren 21eko dekretu bidez, Gizarte Ongizateko teknikari lanpostua merezimendu lehiaketa bidez betetzeko hautaketa prozesuaren onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda eta autobaremazio formularioan lortutako behin behineko puntuazioa onartu eta argitaratu ziren (2023ko irailaren 4ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 170. zk.), merezimenduak egiaztatzeke epea zabalduz.

Izangaiek errekeritutakoari erantzunez aurkeztutako merezimenduen egiaztagiria kontutan izanik, 2024ko maiatzaren 14an web orrian argitaratu bezala, epaimahaiak erabaki zuen onestea behin behineko merituen balorazioa (2023ko irailaren 4ko 170 zk.ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa).

Epaimahaiak erabaki du, merezimenduen behin behineko balorazioaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Gizarte Ongizateko teknikari lanpostua betetzeko hautaketa prozesuko merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onestea. Halaber, epaimahaiak erabaki du, IDURRE AMOZARRAIN MENDIZABAL izangaia proposatzea deialdiaren xede den plaza funtzionario gisa betetzeko.

Horiek kontutan izanda, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Administrazio Bereziko teknikarien azpieskalako erdi mailako teknikarien klaseko Gizarte Ongizateko teknikari lanpostua lehiaketa bidez eta txanda irekian betetzeko hautaketa prozesuko merezimenduen behin betiko balorazioaren eta azken kalifikazioen inguruan epaimahaiak erabakitakoa udaleko web orrian argitaratzea.

BIGARRENA: 8.3. eta 14. oinarri orokorren arabera, proposatutako hautagaiari 20 egun balioduneko epea ematea, epaimahaiak onartutako behin betiko balorazioa eta gainditu duen izangaiaren zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Bergarako Udaleko erregistroan hautaketa prozesuan parte hartzeko baldintzen egiaztagiria aurkezteko, honako hauek aurkeztu edota egin beharko dituela adierazita:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen zinpeko adierazpena.

2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoiren batean sartuta ez gotearen zinpeko adierazpena.

(Lehenengo bi puntu horietan jasotako zinpeko aitorpenerako, jakinarazpen honi erantzen zaion eredu erabili daiteke)

3. Oinarrien arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeke, Bergarako Udaleko

mediku-zerbitzuak behar diren osasun azterketa eta frogak egingo dizkio hautaketa prozesuaren parte den frogaldian.

Osasun azterketa eta frogak egiteari uko egiten badu edo horietatik ez dela gai edo gaitasun mugatuak dituela ondorioztatzen bada, proposatutako hautagaiak kontratatua izateko eskubideak galduko ditu eta frogaldia bertan behera lagako da.

4. Oinarrien arabera eskabide-orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean titulua edo hori lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia konpultsatua eta deialdiaren oinarrietan eskatzen diren gainerako betekizun espezifikoak egiaztatzea eskatzen bada ere, betekizun hauek udalak interoperabilitate bidez egiaztatu direnez ez da aurkeztu beharrik izango.

HIRUGARRENA: Erabakia hau udaleko iragarki taulan eta udal web gunean argitaratzea.”

Begaran, sinadura elektronikoaren datan
BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

SE COMUNICA que la Alcaldesa Accidental el 18 de junio de 2024 ha emitido el siguiente decreto:

“El Ayuntamiento de Bergara, mediante Resolución de Alcaldía de 23 de diciembre de 2022, aprobó las bases generales y específicas del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, del puesto de trabajo de técnico/a de Bienestar Social (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 30 de diciembre de 2022, nº 247).

El 12 de mayo de 2023 se publicó en el Boletín Oficial del Estado un extracto de la convocatoria, abriéndose el plazo de presentación de solicitudes.

Mediante Decreto de 21 de agosto de 2023 se aprobaron y publicaron la lista definitiva de aspirantes admitidos y excluidos del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, del puesto de trabajo de técnico/a de Bienestar Social, y la puntuación provisional obtenida en el formulario de autobaremación (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 4 de septiembre de 2023, nº 170), abriéndose el plazo de acreditación de méritos.

Teniendo en cuenta la documentación acreditativa de los méritos aportados por los/las aspirantes en respuesta a lo requerido, tal y como se publicó en la página web el 14 de mayo de 2024, el Tribunal acordó aprobar la valoración provisional de méritos publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 170, de 4 de septiembre de 2023.

Finalizado el plazo de reclamaciones contra la valoración provisional de méritos sin que se haya presentado reclamación alguna, el Tribunal ha resuelto aprobar la valoración definitiva de méritos y las calificaciones finales del proceso selectivo para cubrir el puesto de técnico/a de Bienestar Social. Asimismo, el Tribunal ha acordado proponer a la aspirante IDURRE AMOZARRAIN MENDIZABAL para acceder como funcionaria a la plaza objeto de la convocatoria.

Teniendo en cuenta lo anterior, **HE RESUELTO:**

PRIMERO: Publicar en la página web del Ayuntamiento el fallo del Tribunal relativo a la valoración definitiva de méritos y calificaciones finales del proceso selectivo para cubrir, por medio de concurso y en turno libre, el puesto de técnico/a de Bienestar Social perteneciente a la clase de técnicos medios de la subescala técnica de la escala Administración Especial.

SEGUNDO: De conformidad con las bases generales 8.3. y 14, conceder a la persona aspirante propuesta un plazo de 20 días hábiles, a contar desde la publicación de la valoración definitiva y la relación de la persona aspirante aprobada acordadas por el Tribunal, para presentar en el Registro del Ayuntamiento de Bergara la documentación acreditativa de los requisitos exigidos para participar en el proceso selectivo, indicándole que deberá presentar y/o realizar lo siguiente:

1. Declaración jurada de no hallarse inhabilitado/a para el ejercicio de cargos públicos ni haber sido separado/a del servicio de la Administración Pública mediante expediente disciplinario.
2. Declaración jurada de no estar incurso/a en alguna de las causas de incompatibilidad previstas en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.

(Para la declaración jurada recogida en estos dos primeros apartados, se podrá utilizar el modelo que se adjunta a la presente comunicación)

3. Para acreditar que no padece enfermedad o defecto físico o psíquico que impida el normal desempeño de las funciones que le corresponden conforme a las bases, el Servicio Médico del Ayuntamiento de Bergara realizará los reconocimientos y pruebas médicas pertinentes durante el periodo de prueba que forma parte del proceso selectivo. La negativa a someterse a los reconocimientos y pruebas médicas, o de resultar no apta, o de tener capacidades limitadas, supondrá a la persona candidata propuesta la pérdida de sus derechos a ser contratada y la suspensión del período de prueba.

4. Si bien las bases exigen la acreditación del título o del documento que acredite estar en condiciones de obtenerlo en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y demás requisitos específicos exigidos en las bases de la convocatoria, dado que estos requisitos han sido acreditados por los Ayuntamientos mediante interoperabilidad, no será necesaria su presentación.

TERCERO: Publicar esta resolución en el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web municipal.”

En Bergara, a fecha de la firma electrónica
LA SECRETARIA ACCIDENTAL

